Euzkerea Ondarroa'n

Gure uritxu txukun onetan beti egin ixan da euzkerea geure Abeři-ele mañagařija. Eztau iñoiz be galdu bere endearen elia.

Ařantzaliak, iñoiz lenago be esan dogu, baseřiařak baño eřazago dabe euren elia galduten, baña eztira eurak lenengo galduko dabenak, ezin dabe galdu.

Tefanova-aldeko itxas-abarubei euzkel-ixenak imiñi eutsezanetik baño antxiñagoko euzko-endako gixon sendo oneik, ez Ondařoa'kuak bakařik, Bizkai-itxasoko uri gustijetako gixonak, basteř gustijetara darue geure ele zoragařija.

Eta zorijonez, eurok eztakaře beste abeřijetako elerik geure Abeři'ra.

Beste abeřijetatik geyen ikeřtau ixan daben abeřija, España ixan da.

Antxiñan, makalauetara-ta juaten ziranian be, ikeřtauten eben España, nařa beste lateři batzubek baño gitxijago.

Atunetiari oratu eutsenetik gařařte ostera, beste lateřirik eztabe gitxiřan baño ikeřtuten. Noxian bein Parantze-aldera, baña alde ořetatik bere gitxiřan, ba, geyenetan, Euzkadi'ko uretatik eztira igaroten an be.

Orduban ekařiko ebezan zeozelako abestijak-edo, baña etzetořan gure gixonik eřdera ikasiřa, porixe bai ez!

Belaři onekuak ixanagařik, eta onetan eztautso iñok ludijan geyago egingo euzko-ařantzaliari, ezeben abestijetako izkirik ikasten, nařa eresija, eres-egiliak berak baño be obeto abestu.

Ezagututen dogu abesti bat Motriko'n eta Ondařoa'n, gustiz bařegařija. Eguben-Guren eta Bariku-Guren egunetan abestuten dabe. Josu Kurutzetubaren abestiiak dira:

Damu dot Jauna
Bijotz gustiřik
Zeu ofendidu Ixana.

... ...

Bertso zař oneik euzkera mordolua dabe, ta eři gustijak abestuten dauz. Baña gořijena, euren eresija, Andalucía'ko "saeta" bat da.

Ařantzaliak, ba, andiko eresija ikasijagařik, izkija geuria imiñi eutsen, eztabe beste elien zaletasunik iñoiz be ixan-eta.

Orain, atunetako aldian, España'tik ibilten dira, baña eztabe eřderařik ikasten, ezta biař be. Ezin ikasi dabelako, ainbat baře eragiřen dauskube sařiřan, eurak, an, España'ko eřijetan gauzak erosten juaten diranian erabilten dabezan nastiak edestuten duskubezanian.

Gaste batzuk ekařten dauskubez iñoiz alako abesti loyen batzuk, baña eresija ondo abestu ařen, izkija ankaz-gora-edo iminten dabe ta eurak be eztakije zer esaten daben. Ezin jakoe eřderařik sařtu belařijetara.

Batzokija'n-eta abeřtzale-itzaldijak eřderaz egiřen ba-dira, ařantzaliak asařatu egiřen yakuz. Erderazko itzaldirik danian eurak saldu egiřen daguzala esaten dauskube.

Geure Aldeřdija'ren arerijuak be, eurak eztirala maketuak erantzuten dabe, iñok olan deřuten ba-dautse.

卐 卐 卐

"¿Zer esan dau, zer esan dau?"

Bai, ba, gixajuok ezin dabe uleřtu españařak eztirala, ta españařak dirala atzalduteko orduba elduten danian, ¿zer esan dau, zer esan dau?

Haunau sař-sař, titin-potin entzuten geban Primo de Rivera'ren dictadura aldijan. Orduban "pregoya" eřderaz egiřen zan lenengo ta gero euzkeraz.

Emakumeak jakin-guria dabe bařuban eta ezeben ixaten astirik euzkerazkua enjakin-barik egoteko, ta "¿zer esan dau?" jakin-barik egoteko, ta ¿zer esan dau? auzokuari iřaundu biař, ta auzokua be berala euzkelduna bakařik zalako, bijak eta gustijak, euzkerazkuari itxaron biař.

Orduban, Zacarias Martinez eukı geban geure Gotzain, ta arek be eřderazko txonitzak imiñi euzan geure txadonan, eta geure atzotxu ta agurak eta gastiak be bai, ezeben uleřtuten zer esaten eban txonizlarijak.

Egon zan orduban, eztot uste oker nagonik, jaupari bat agindu oferi jaramonik egin ezeutsona, ta ezeban iñoiz be erderazko txonitzik egin.

Txadoneko abesti gustijak euzkerazkuak ixaten ziran. Noxian bein Miren-alabak abestuten ebezan euren eřderazko abestijak. Nunbait "señoritak" bai-ziran.

Baten baña, "señoritak" etziranak sařtu ziran euren abespatzan, eta Miren Ama'ri dagokijon, lez abestuten asi ziran, geuk uleřtubaz eurak be zer abestuten eben jakinda. Asařatu ziran gure "señoritak", baña biař eben erantzunaařtu eben ta ixildu zira nbetiko.

卐 卐 卐

Gauř, be, Ondařoa'k, bere bidia darua euzkereatzaz. Beti egin ixan da euzkerea geure eřijan. Baña gauř, "ETA GURE EMAKUMEAK AUŘENEGO DIRALA", euzkerea garbiřuten diñardube gure eřiřařak. Txaluak zubei.

Bide ořetatik jařatuten ba-dau, Ondařoa, lasteř ixango da Euzkadi'n auřenengo eřija.

Eřderazko itz asko basteřtu dabez, ta euzkerazko garbijakařtu.

Eta onaño eldu nazan eskero, "Lauaxeta,'k bein baten ondařutař idazle bateri egin eutsan eřegu bat neuk be orain Asko ikasi dozube, egija. Eztarabiltzube zeben espanetan "balkoirik" eta "ventanarik", ezta "elixarik" eta "comedorik", eta ori loftu dozuben eskero, ikasiko dozuben gustiia, bizkayeraz ikasi egixube.

卐 卐 卐

Euzkerea, ba, auřera dua Ondařoa'n.

Baña arerijuak beti ixango dira arerijo.

Eztakigu geure arerijo dan edo ez orain ixentauko doguna. Agirijak geure arerijotzakuak ixan dauz.

Gixonau, eztakigu euzkeltzalia dan edo ez. Agirijak ezezkuak ixan dauz.

Baña euzkeltzalia dan eztakigunařren, euzkerea, guk baño be obeto daki berak.

Eřija asaře da beragaz, ba, eřija, txiro bat, gosedun bat, jateko eske juan eta atiagaz mutuřetan jo eskero asařatu'en da aberatsagaz, eta geure eřija, euzkera-gose dan eřija, euzkera-eske juan ako berari ta aberatsak egin eutsono dagitso berak geure eřijari.

Gomařasuna, "caridadea", kistař gustijon bijotzak zabaldu biař doguna da.

Ořen auřka juatia da, eskatuba ukatzia.

Ondařoa, euzkera-eske dago.

Zeuk, iñok baño obeto dakixu, aberatsa txindijaren jaube dan lez, zeu be euzkera-jauke zara.

¡Emon egijozu ba eřijari zeure euzkera edeřa!

"Caridadea" egingo dozu.
Ori da kistařak egin biař dauna.
Kistařenařtetik, jauparijak,
Jauparijenařtetik, TXAUNBURUBAK AŘTIBAI.

ERRIJETATIK

MAÑARIA

BEDERATZIUŘENA.—Andera Miren'en jasokundiaren aintzaz emeko ertxadonan urtero ospatzen dan bederatziuřena, igaroriko igandian asi zan Iluntzijetan egiřen da.

ONDIÑO BE...—Geure Batzokiia ondiño be eztabe edegi. ¿Nozařte giltzpian, diñozu? Itaun azartu ořeri erantzutia ezta eřez gero... Gauř au ta bijař ori esaten daben gixontxu baten "abo-esanian" gauzia dagoalako.

Dana dala ezkadixan lařegi estuto; aingeruak tronpetia jo baño len ate-mořoluok edegiko dira ta. Ta... orduko kontuak, eztituz esango mutuak...

BERUA.—Biař ixan ba-dogu etoři jaku ba. ¿Au dok berotzařa! Egunontan geyen darabilgun esakuna orixe da. Eguzkijak eta ego-axiak sorturiko ume ořek arterik aitzen be extauzku izten. Gogaikařija da gero!

Eskeřak Saluete'koařtzuluaren (kobiaren abo zabalari. ¡Ango egotaruaren edeřa!

JUAN-ETOŘIJAK.—Legutiano'ra Juan zan egun batzuk igaroten, Mañarikua'tař Irune neskatil abeřtzalia.

—Emen ilabete igarota, astařtian Juan zan Santurtze'ra, Kapanaga'tař Pantzeska mutiko zolija.

—Bilbao'ra juan ziran Arteaga'tař Kepa ta emaztia ta Amantegi'tař Lon eta emaztia. Danok abeřtzale zintzuak.

—Bilbao'tik etoři zan Gařido'tař Imanol bere alabatxuakaz.

—Eibar'tik, Sarobe'tař Pausta mutila.

—Ereño'tik, Ortuoste'tař Miren Jasone neskatil abeřtzalia.

LAURENTZI DEUNEZ. — Goxeko saspiretan saluete'ko basontxonuan meza ixil bat emon zan. Eta bertan, Laurentzi deuna'ren oneraspenak eroanda, ainbat lagun batu gintzazan.

Larogeña urte lenuan ebezan (batek larogetamař) lau agure be antxe ikusi zabazan. Eta ez edozelako gixonak! "Lařea" upj'ko Lauren, "Azkondo,'ko Dorota, "Idartza,'ko Ander eta "Kapana-Erdikoa,'ko Perderika Danok be, euren sasoyan axiaren putzak luřeratzekuak etziran ixango. Gixon eřimiak eta adoretsubak.

ONDO DERITXOGU.— Euzkel-idazlian batzařatzaz "Atařene" zintzuak iñoanari, edeřto eretxi geuntzon Bustintza'tař Ebaista "Kirikiño" zanaren gomutaz eři ontan ospatu leteke. Au baña, batzořdiak erabagi biařko dau. Bařena jaunak-eta.

TAMALA. — Igandian ospatzeko zan Abadiano'ko Gastetxuben jaya jaurlarijak gebentziaz tamalaařtu geban. Auzo-eři begiko ořetar juateko pozez gengozan ba-ta Artzeluztař Amale neskatua'ren berbaldija entzuteko gogoa bai-neban ba. Uřengoan ixan biařko.

MAÑARIKO.

ZEANURI

¡BESTE GUDARI BAT IL!—Len Ontalbilla, eta gaur Abauřea Len Galdames'en, eta gaur Sodupe alderdijan; baña... beti sosolistubaren iskilupean eta beti abeřtzaldia. ¡Tamalgařiya da benetan izpar au! eta ez bakařik euzko-gudari sutsuba ixan dalako, sei ume ařa barik eta emakume bat senař barik geldiřuter. diralako baño. ¡Sei ume-zurtz eta andra alargun bat nondik ogiya etořiko yaken estakiyela, Sodupe'n gelditu dira! Abauřea'ren eriyotzeak (G. B.) gustil ilunduta itxi dauz bere etxe eta eři gustija.

Sendi onen bizitza gařatza bigundu eta al danik geyen lagunduteko, Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n asiřa arpide bat zabalduten erabagi da.

¡Zeanuritařa! lagundu al dozun gustijagaz sendi onen aldez zabalduriko arpidian. ¡Gauř oneikařik, eta usterik gitxijenian geugařik! Arpide au auřera eruateko Manterola'tař Domeka, Oleaga'tař Josu eta Sagarna'tař Jon ixentau dira.

LAURENTZI DEUNA.—Egun gitxi dala Otzerinmendi'n onetzi dan basotxonan, joan dan egubenian, bertako jayak ospatu dira. Goxean eleizkixunak eta euzko--jolasakazařatzaldean.

NASKALDIJA.—Bilbao'tik etořiřa aur kitzen dira Intxaurbe'tař Jon eta bere aista biyak.

Baita egun batzuk igaroten etořiřa Bilbao'ko Gisasola pelota-zalea bere sendijagaz.

Eguraldi edeřak ikusirik Gorbeya aldetik jentea ugari.

Ila onen 13'an asiřa Batzokiya sabalik ixango da.

Beren sabalkundija datořen ilaren 17'an ixango da, eta egun atan etořiko diran itzlarijak "Altzeta", "Lauaxeta" ta Zabala'tař Josu dira.

ZEANURI'KO "ANDRAMARI" JAYAK

15'an.—Goxeko selretan eta bederatzijetan, eřiko txistularijak goxerestı eta biribilketak joko dabez.

Bederatziterdijetan Jaupa nagosija, Gorkoetxea'rena abestuta.

11 ta erdijetan: auřeskuba.

12: kotziertu edeř bat.

Ařatsaldeko 4'etan ezpatadantzea. Ostean Jolas ugarijak.

6'etan pelota jokoa Etxebařia eta Txopitea (Lekeitio'kuak) Elortza eta Urola, Markiñakoen auřka.

Bařa gastijentzako ariñeketa bat be ixango da.

19.—Goxeko goxerestija, biribilketa eta jaupea auřegunean legez.

11 ta erdijetan eta 12'etan ezpatadantza eta kotziertuba.

Ařatsaldeko 4'etan umientzako jolasak. Ondoren eřomerija.

6'etan pelota-jokua Goitia (Mundaka'koa eat Elořiaga (Etxebařikoa), Beřiozabal eta Altuna Areatzako'en auřka.

17'an.—9'etan: Eleizkixuna ildakoen aldez.

11'etan umientzako jokuak.

Ařatsaldeko 5'etan asiřa pelota-jokua eta umien jolasak ostean dantza ugarijak.

18'an eta 19'ko ilunkeretan be dantzea ixango dogu.

20'an.—Goxean, goxerestija, biribilketak bardin.

11 ta erdijetan, auřeskulari eta dantzarijen sariketak.

Ařatsaldeko 4'etan "Baratzar'ko aldatzaren bigařen igoerea" ixenagaz txiřindularijen ariñeketea. Sari edeřak ixango dira. Ostean Eřomerija eta pelota-joko edeř bat.

¡Euzkotařak! Danok Zeanuri'ko euzko-jayetara.

AŘEGI'TAŘ BAT.

OROZKO

ILEROKO IZPARAK.—Gustiz ongiřuta dago bere gaxotasunetik geure jaupari, goragařija (bai, "David" bai zeuk ixen ona kendu gure ařen) Lařagan'dar Biřorin jauna. Beřasi da belduntza Murueta'ko eřtxandonan Salazar'tař Julen txaunburu matea. Poztu gara asko Ilařamendi'tař Pantzeska Uri-batzař'ko ziñegotzija, oeratuta egon da. Orain ongi da.

JUAN-ETOŘIAK. — Ainbat denpora uřutik ibili ta, etoři da bere txokora itxasoko buzkindari Pikaza'tař Marka. Kortezubi'tik irakasle emakumia Ibayondo'tař Miren Karmele, Bilbao'tik Lařakoetxea'tař Elixabete. Egun batzuk igaro ditu gure ařtian bilbotař emakume poliřak Salzedo'tař Eřuniño. Saguntotik etoři da udea igarotea abeřtzale zintzua dan Landaluze'tař Imanol, bere emazte gastiagaz. Madrid'dik Roquero'tař Lanberta jaunen sendija. Lařakoetxea'tař Ipolita Aba, ikusi gendun egun batzubetan. Asko poztu gintzan. Arbaitza'ko irakaslemia Pagaldai'tař Igone, Gazteiz'ko bere txokora juan zan. Fernando Poo'ra ibilbide, Barcelona'n itxasoratu zan gure lagun andija Ilařamendi'tař Bingen. Ia ba, gogoř-gogoř egin

LEKAIDEKUNDE.—Ibařa'ko lekaidetxian, lengo egunean lekaidetu zan Amandarae'tař Andonine, Adaro'ko etxe ezaguneko alaba. Izkintzari zan, Totorikaguena'tař Domeka eta itz edeřak esan ziřuan.

EZKONTZA.—Lasteř egiřeko asmuan dabiltz Pagazaurtundua'tař Peli, eta Mimenza'tař Miren. Ařtu egizube geure zorijona auřetik.

LAURENTZI DEUNA.—¡A bai, ixan zan egun edeřa! Goxerik eguzkija asi zan bere dirtitasuna daxetek zabaltzen, eta geu be ain irudi ona ikusi ta, Urgoiti'ra juan biař gendula. Jaupa nagusi edeř bat abestu eben, eta Etxebařia'tař Luke emakuma, zan txauneskindarija. Atxuřa jauna, lekeitiař apaitz gastiak samoyaldi edeř baten atzaldu euskun Deunen bixitza. Aranburu'tař Pulgentzi'ren zuzenbidian gorularijak dantzatu ziran. Eskařak Urgoite'ko auzunan, bada aintza edeř bat zan Abeřija'rentzat.

Begoña'ko Ama Neskutzaren eguneau Ibařa'n iai ikuskařijak iragaři diřubez Geure dantzak be, trebetuko dira.

"AL CORRESPONSAL".— Aspaldin zeure izpařak ez doguz irakuři Euzkadi'n eta jakinda gexorik ez zagozala, jagi, biař dozu asmo andiagaz. Ez bilduřtu "chismes de cocina" gařik. ¡Auřera ba, bete...!

"LEMOTZA,'RI.—¿Uste dozu adizkidia, Orozko'n ain "usatxu" gelduak dagozala? Bada zeuk, asmo andija badaukazu euzkerea zabaltzeko ¡emen geu! lumetxu gustijak aterařte, lan-egiřen Abeřija'ren alde. ¿Zu, nor zara? nora hialdulko dogu, bidarientzako zuzenbidea? Eztaukagu ixen-abixenik, Jaun-Goikuak bialduta Lagi Zařa ipinteko, ludi gustijan deřuten gara.

USOTXU BI.

MUTRIKO

ARALAR'ERA.—Gauř zortzi, emengo abertzale talde aundi bat, Aralar-mendira igotzeko asmoetan dira noski. ¿Bai alda kizute zeinduten "kepe"? Ez badakizute ta jakinen gañian egon zaitezten "Patxiko Kale" dute euron "kepe". Uste det "tripa" aundia badauka gutxituko zayola tontořera eldu baño len. A zer "koipea" betik gora. "Koipe" ořekin egindako tořarai a zer mauka. Ondo ta ala ibiltzia opa dizuet "Kale ta bere "tripari".

"ABEŘI,'RI OMEN ONDOREN.—Elgoibař'tik etoři ta uřengo egunean galdetu nion "Gurutz-ondo,'ri: "Kaxo "Gurutz-ondo"? atzo ondo ibili al giñan? ta onela erantzun ziran.

Ni ondo ta gaizki, biyak. Andra gaya topatzeko azmoetan joan nituken eta "palo" bate gabe etxera. Ja... ja... ja... Ore ere bai? Ez aiz makala "Gurutz-ondo". ¿Zer nai dek bat? Motrikon bat eta Elgoibařen beste bat? Ořenbeste geyegi dek "El que todo quiere, todo pierde". Ta iri ere ori gertatuko zaitz. Ta bada "Gurutz-ondo", ezak ořen beste oldoztu, andrageya nai badek "Abeři" esango diogu, ta berak bilatuko dik ¡Abeři! Emen daukagu amasaspi uřteko mutil zař bat edo mutil zař egingo ote dan bilduř dan bat ta or esan egiozu "pregoneruari" onela "pregoya" "joteko" "Aditzen ematen diot" "publikuari" nola. Motriko'n dagoan mutil bat andrageya nai duana ta iñoř agertzen bada nai duanik. Txanbolingo atadian "presentatu" dezala ogeita lau ordu bařu "gratificatua" izango dala ta.

ANDONI.

Deunen bixitza

Eusebi deuna autortzalia

Gauř ospatuten dogun Eusebi autořtzalia, Roma'ko jauparija zan Konstantzi agimendunaren aldijan. Ariuztařak euren alde ta guramenetara leben agimenduna, eta orokařen atxia jazařka aundija jaso leben. Roma'n batez be sutau zan jazařka gogořa. Ariustařak, agimendunaren aldezkundiaz, su ta bei jarduten leben ziñeskitz egiřařaz atxin, eta zori andija sořtu yaken eřiřařai eta ziñeztun zintzo apal gustijai. azařka ta oldařkuntza gogoř oři jařki egin biař yakan, eta gogoř jařki be. Eusebi jauparija jagi zan auřka; eta ziñeskitz egija aldeztu egin leben edaskixunetaz-eta gogoř ta sendo. Ariustařak, ascřeturik, etaařtuten leben ostekuntzeaz goriřurik, itz baltza jaso leutsaen jaupari oři aguřgařijari, itz baltza zabaldu ta agion aguřgařijari, itz baltza zabaldu ta agion aguřgařijari, itz baltza zabaldu ta agimendunari salatu. Agimendunak, bere almendunari salatu. Agimendunak, bere almendunari salatu. Agimendunak, bere alm